

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE FUNTSA. KUTXATEKA

ESPAINIAR ARMADAREN MANIOBRAK GUADALUPEN, 1916AN

Argazki beldurgarri honek gatazka belikoren batean egina dagoela eman dezake, bai euskaldunok Bidasoaren bi aldeetan jasan ditugun gerretan, bai beste batzuetan. Baina ez da horrela. Irudi hau 1916an egin zen Hondarribiko Guadalupe gotorlekuaren inguruan, gure mendi eta baserrietako lurak gerra eta suntsipenerako makineria probatzeko erabiltzen zituzten espainiar armadaren maniobra batzuetan. Makina hori bera erabili zuten Espainiako armadak eta haren aliatuek Rifeko gerra kolonialean, 1920ko hamarkadan, eta, urte batzuk geroago, 1936an, milaka euskal herritar hil eta hainbat herri eta hiri suntsitu zituzten bereizi gabeko bonbardaketetan.